# ADIERAZPEN INSTITUZIONALA / DECLARACION INSTITUCIONAL

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO EGUNEKO ERAKUNDE-ADIERAZPENA

1.- Arrasateko Udalak bere egiten du, Emakumeen Mundu Martxaren mugimenduak proposatuta, urriaren 13an osoko bilkuran onartutako indarkeria matxistari aurre egiteko ebazpen-proposamena.

2.- Arrasateko udalak erakunde guztiei eskatzen diete gizarte-, politika- eta erakunde- akordio bat bideratu eta sustatu dezaten genero-indarkeriaren aurka, gizarte seguru eta emakumeen aurkako indarkeriarik gabea eraikitzako, eta halaber eskatzen diete biktimei eta haien ardurapean dauden mendetasuneko pertsonei bideratutako aurrekontu-sailak berritu eta hornitu ditzaten nahikotasunez eta eraginkortasunez.

3.- Era berean, Arrasateko Udalak eskatzen du genero-indarkeriako epaitegi espezializatuetan abian jartzeko laguntza judizial pertsonalizatua, genero-indarkeriarren biktima diren emakumeek informazioa eskuratzeko ibilbide judizialean aukeran duten bide eta prozedura seguruenari buruz, salaketa aurkezten dutenetik prozesuaren bukaerara arte, eta baita ere esku hartzeko berariazko protokoloak ezartzeko, genero-indarkeria dela-eta jarritako salaketa kendu duten emakumeei arreta integrala emateko.

DECLARACION INSTITUCIONAL DEL DIA CONTRA LA VIOLENCIA HACIA LAS MUJERES

1.- El Ayuntamiento de Arrasate hace suya la propuesta de resolución aprobada en pleno de 13 de octubre a propuesta del movimiento de la Marcha Mundial de las Mujeres para hacer frente a la violencia machista.

2.- El Ayuntamiento de Arrasate insta a todas las instituciones a adoptar y promover un Acuerdo Social, Político e institucional Contra la Violencia de género para construir una sociedad segura y libre de violencia contra las mujeres, reponiendo y dotando suficiente y eficientemente las partidas presupuestarias y recursos destinados a las víctimas y las personas dependientes a su cargo.

3.- Así mismo, el Ayuntamiento de Arrasate insta a poner en marcha, en los juzgados especializados en Violencia de Género el Acompañamiento Judicial Personalizado para hacer accesible la información a las mujeres víctimas de violencia de genero sobre el itinerario y el procedimiento más seguro en su recorrido judicial, desde el momento en el que ponen la denuncia hasta el final del proceso, así como al establecimiento de protocolos de intervención específicos para la atención integral a las mujeres que han retirado la denuncia por violencia de género.

# ADIERAZPEN INSTITUZIONALA / DECLARACION INSTITUCIONAL

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

4.- Arrasateko Udalak zuzenean dei egiten die hezkuntza eragileei, berdintasunari, heziketa afektibo-sexualari eta genero-indarkeriaren prebentzioari buruzko berariazko prestakuntza sar dezaten curriculumean, heziketa-etapa guztietan, errespetua elkarbizitza nagusi izango diren etorkizuneko gizartearen oinarriak ezartzeko.

5.- Era berean, Arrasateko Udalak Gipuzkoako foru aldundiari eskatzen diote egiten ari den emakumeen aurkako indarkeria matxista sahiesteko plan integralean sartzeko berariazko atal bat, indarkeria horren biktima diren adingabeen kaltea prebenitu, babestu eta zuzentzeko.

6.- Arrasateko Udalak eskatzen du 2004ko legearen prebentzio-, prozesu-, zigor- eta babes-xedapenak zabaltzeko, dagozkion egokitzapenak eginez legeak barne har ditzan emakumearen aurkako indar mota guztiak, CEDAWren 19. Gomendio Orokorrak eta emakumearen aurkako indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren aurkako prebentzioari eta borrokari buruzko Eurpako Kontseiluaren itunak (Istanbuleko Ituna, Espainiak berretsia) agindutakoari jarraikiz.

7.- Arrasateko Udalak Emakunderi eskatzen dio talde feministekin, emakumeen taldeekin eta organismo adituekin elkarlanean, osoko ikuspegia izango duen analisi bat egin dezala emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako egungo

4.- El Ayuntamiento de Arrasate hace un emplazamiento a los agentes educativos para incorporar al currículo la formación específica en Igualdad, educación afectivo sexual y de prevención de la violencia de género en todas las etapas educativas con el fin de sentar las bases de una sociedad futura de respeto y convivencia.

5.- Así mismo, el Ayuntamiento de Arrasate insta a la diputación Foral de Gizpuzkoa a incluir en el plan integral para evitar la violencia machista contra las mujeres que está elaborando, un apartado específico destinado a la prevención, protección y reparación de daño a los y las menores de las víctimas de dicha violencia.

6.- El Ayuntamiento de Arrasate pide que se amplíen las disposiciones preventivas, procesales, punitivas y protectoras de la ley de 2004 para abarcar, con las adaptaciones necesarias, todas las formas de violencia contra la mujer, tal como exige la Recomendación General nº 19 de la CEDAW y el convenio del consejo de Europa sobre Prevención y Lucha contra la Violencia contra la Mujer y la Violencia Doméstica (Convenio de Estambul), que España ha ratificado.

7.- El Ayuntamiento de Arrasate insta a Emakunde a que, en colaboración con los grupos feministas, grupos de mujeres y organizaciones expertas, realice un análisis desde una perspectiva integral de las políticas actuales contra la violencia hacia

# ADIERAZPEN INSTITUZIONALA / DECLARACION INSTITUCIONAL

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

politikei buruz. Halaber, neurri egokiak proposatu ditzala erantzuteko bai analisi horretan antzemandako beharrei, bai indarrean dauden arau eta erabakien ebaluazioan identifikatutako hobetzeko alorrei.

8.- Era berean, Arrasateko Udalak erakunde eskudunei eskatzen die gizarte-zerbitzuen aurretiazko balorazioaren arabera indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei berehala etxebizitza-alternatiba bat bermatzeko neurriak garatzen jarraitzeko.

9.- Arrasateko Udaletik, borroka feministarekin daukagun konpromisoa berresten dugu, emakumeenganako eta gainerako senitarteenganako indarkeriarik gabeko gizartea eraikitzeko tresna gisa.

10.- Arrasateko Udalak azaroaren 25eraku mugimendu feministak deitu dituen mobilizazioekin bat egiten dute eta bertan parte hartzeko dei egiten diote herritar guztiei.

11.- Arrasateko Udalak, talde feminista eta emakume taldeekin elkarlanean, hiriari lotutako biolentzia matxistei aurre egiteko emerjentziazko plan iraunkorra abian jarriko du (berriztu), horretarako behar diren bitarteko tekniko zein ekonomikoak aktibatuko dituelarik.

las mujeres, y proponga las medidas adecuadas para responder a las necesidades detectadas en dicho análisis así como en los ámbitos de mejora identificados en la evaluación de las distintas normas y acuerdos vigentes.

8.- Así mismo, el Ayuntamiento de Arrasate insta a las instituciones competentes a seguir desarrollando medidas para garantizar una alternativa habitacional inmediata destinada a aquellas mujeres que, previa valoración por los servicios sociales, sean víctimas de la violencia machista.

9.- Desde el Ayuntamiento de Arrasate ratificamos nuestro compromiso con la lucha feminista como vía e instrumento para la construcción de una sociedad sin violencia hacia las mujeres y demás familia.

10.- El Ayuntamiento de Arrasate se suma a las movilizaciones convocadas para el día 25 de Noviembre por el movimiento feminista y hacemos un llamamiento a toda la ciudadanía para que participe el ellas.

11.- El Ayuntamiento de Arrasate, en colaboración con grupos feministas y grupos de mujeres, pondrá en marcha (renovará) un plan para hacer frente a las violencias machistas vinculadas a la ciudad, activando para ello los medios económicos y técnicos que sean necesarios.